

KRISI PROTOKOLOA

1. Krisiaren definizioa

Egoera emozional baten ondorioz, ikaslearen jarreraren alterazioak sortu edo aurreikusi daitezke, bai auto edo heteroeraso bezala edo/eta material puzkaketekin. Egoera horri krisia deitzen diogu.

Krisi baten aurrean eman beharreko pausoak

Krisia sortzen denean, egin beharreko lehenengo gauza laguntza eskatzea da (whatsapp edo larritasun mandoaren erabilera). Libre dauden pertsonak gerturatuko dira laguntzera. Printzipioz Osakidetzako profesionalek dira krisialdiak kudeatzeko arduradunak. Ahal izanez gero, ikasleekin lanean ari diren pertsonak ere gerturatuko dira, kontuan izanda beste ikasleak ez ditugula inoiz bakarrik utziko. Pertsona bakar batek zuzenduko du egoera, eta besteek pertsona horren esanetara egongo dira.

Bi aukera sortu daitezke:

- Laguntza eskatu duenak egoera kontrolpean edukitzea edo ikaslea kontenitua edukitzea.
- Ikaslea kontrolpean ez izatea.

Balorazioa

- Ikaslearen egoera menperatua dugunean, denen artean erabakiko da ea hausnarketa gelara eramango den.
- Ikaslearen egoera menperatu gabe dugunean, kontenitu egingo da.

Bi egoeretan, ikaslearen trasladoa egiterako garaian, behar dugun denbora hartuko dugu trasladoa modu egoki batean eta segurtasun osoarekin egiteko. Ikaslearekin pertsona bakar batek hitz egitea gomendatzen da.

Ondorioak

- Eraso fisikoa egonez gero, ikaslearen egoera aztertuko dugu etxean gera dadin hurrengo egunean. Egindako minaren ondorioak ere baloratuko dira.
- Ikaslea unitatera bueltatzen denean, turore legalekin etorriko da. Ikasleak egindakoa hausnartu ondoren, erabakitako ondoriak beteko ditu.
- Materiala puskatuz gero, zer eta nola konpondu erabakiko dugu.
- Eraikinetik ateraz gero, helduok ikaslea ikusteaz uzten dugunean eta ikaslearen segurtasuna arriskuan dagoen momentuan Ertzantzari eta Udaltzangoei deituko diogu.

Ihesaldi protokoloa

Ikasleren batek zentroko eremutik kanpo ateratzen baldin bada, ondorengo pausoak jarraitzen dira:

- Ikaslea zentroko esparrutik ateraz gero, eta helduen ikus-eremu barruan baldin badago, kontentzio emozionala eginez zentrora bueltaraztean saiatuko gara.
- Ikaslea helduon ikus-eremutik kanpo geratzen bada, ikaslearen segurtasuna bermatzeko, berarengana aterako gara eta, Udaltzanei edo Ertzantzari deituko diogu.
- Familia edo legezko tutorei informatuko zaie.

Eraso protokoloa

Profesionalek eraso jasotakoan jarraitu beharreko pausoak:

- Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren 02 Eranskina bete.
- Koordinatzaileari eman.
- Koordinatzaileak Zuzendariari hilabetero helarazi.
- Zuzendariak Administrazioa bideratu.
- Beharrezkoa baldin bada, langilea Mutuako sendagilearengana joango da (Mutualia edo Muface)
- Sendagileak baja ematen badio egunean bertan Administrazioa bidaliko da.

Garraioaren kudeaketaren prokoloa

Egunero egoeretan jarraitu beharreko pausoak

Gidaria bakarrik dagoenean

1. Ikaslearen etxean jaso.
2. Atzerapena (5 minutu), hutsegitea, edo beste edozein gertaera egonez gero UTHra deitu.
3. Ikaslea agurtu, elkarrizketa informala hasi, irratia edo musika jarri, edo ixilik egin ibilbidea.
4. Bertan ez dagoen ikasletaz ezin da hitz egin.
5. Informazio aipagarriren bat balego, Zentrora iristerakoa UTHko profesionali helarazi.
6. UTHn ikasleak jaso.
7. Bakoitzaren etxera edo ikastetxera eraman.

Gidaria HLEarekin dagoenean

1. Profesiona jaso UTHn (ibilbiden arabera)
2. Ikaslea etxean jaso.
3. Atzerapena (5 minutu), hutsegitea, edo beste edozein gertaera egonez gero UTHra deitu.
4. Ikaslea agurtu, elkarrizketa informala hasi, irratia edo musika jarri, edo ixilik egin ibilbidea.
5. Informazio aipagarriren bat balego, Zentrora iristerakoa UTHko profesionali helarazi.
6. UTHn ikasleak eta profesionalak jaso.
7. Bakoitzaren etxera edo ikastetxera eraman
8. Profesionalak UTHra eraman

Garraioaren krisi protokoloa

1. Krisiaren definizioa

Egoera emozional baten ondorioz, ikaslearen jarreraren alterazioak sortu edo aurreikusi daitezke, bai auto edo heteroeraso bezala edo/eta material puskaketekin. Egoera horri krisia deitzen diogu.

2. Krisi baten aurrean eman beharreko pausoak

- Gidaria bakarrik dagoenean
 1. Kotxea gelditu
 2. Kontenzio emozionala egin
 3. UTHra deitu
 4. Krisia egoera agresiboa bada Ertzantzari eta UTHra deitu
 5. Kontenzio fisikoa egin (ahal bada)
 6. Ihes egoera ba da Ertzantzari deituko da eta UTHra

- Gidaria lagunduta dagoenean
 1. Kontenzio emozionala egin
 2. UTHra deitu
 3. Krisi egoera agresiboa bada kotxea gelditu eta Ertzantzari deitu eta UTHra
 4. Kontenzio fisikoa egin (ahal ba da)
 5. Ihesi egoera ba da Ertzantzari deituko da eta UTHra

3. Ondorioak

Informazioa jaso ondoren, UTHko profesional taldeak erabakiko du zeintzuk izango diren ondorioak eta gidariei helarazi.